

# Trafikoa arautzen duen udal ordenantza

2000ko uztailaren 24ko 89. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

34 eta 35 artikuluen aldaketa barnean dago, 2012ko abuztuaren 24ko 167. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Burlatako Udalak, 2000ko martxoaren 2an egindako ohiko bilkuran, honako akordio hau hartu zuen:

1 -Behin betiko onestea "Trafikoaren Udal Ordenantza"ren aldaketa. Hona hemen testua:

Jokabiderako arau orokorrak

1. artikulua. Ibilgailuek debekatua dute asotsa egitea, seinale akustikoak desegokiro erabiliz edo tupustean azeleratuz, bai eta ihes-hodi trukatuak, ozen-ozen jarritako musika ekipoek edo bertzelako ezohiko inguruabarrek eragin dezaketena ere.

2. artikulua. Ibilgailuen soinu-alarmak arrazoirik gabe pizteagatik zehapena ezarriko da.

3. artikulua. Debekaturik dago suteak, zikinkeria, zirkulaziorako arriskua edo, oro har, kaltea eragin dezaketen gauzak edo isuriak bidera botatzea.

Halaber debekaturik dago bide publikoan ibilgailuaren edonolako konponketa edo garbiketak egitea.

4. artikulua. Oinezkoek debekaturik dute bidea baimenduta ez dauden tokietatik zeharkatzea. Toki baimenduetatik egin beharko dute, ahal den azkarren, gelditu gabe edo bertze erabiltzaileei traba egin gabe, eta zirkulazioa oztopatu gabe.

5. artikulua. Galtzada gaizki baldin badago, obrak, eguraldia edo bertze zerbait direla eta, gidariak kasu eman beharko dute, istripurik eta oinezkoendako eragozpenik gerta ez dadin.

6. artikulua. Arrastiritik argi-hastera bitarte ibilgailuek hurbilerako argiak piztuta eraman beharko dituzte, udal mugapeko galtzada guztietan. Motozikletek egun osoan eramanez dituzte argiak piztuta. Halaber, hurbilerako argiak, eguraldiak hala eskatzen duenean, eraman beharko dira piztuta.

7. artikulua. Debekaturik dago gidatu bitartean telefonoak edo komunikatzeko antzeko bitartekoak erabiltzea, hauek "eskuak libre" izeneko gailua dutenetakoak ez badira, behintzat.

Bizikletak eta ziklomotorrak

8. artikulua. Ziklomotorren, bizikleten, monopatinen eta gidarien energiak mugitzen dituen gainerako ibilgailuen kasuan, zirkulazioaren arau orokorrak bete beharko dituzte gidariak.

9. artikulua. Bizikleta eta ziklomotorrak oinezkoendako alderdietan edo espaloi eta pasealekuetan aparkatu ahal izanen dira, Udalak ezarritako gune erreserbatu eta behar bezala seinalatuetan.

10. artikulua. Aparkatzeko gune horietara oinez sartuko dituzte ziklomotorrak, gainean jarrita joan gabe eta motorra itzalirik, eta haren indarraz soilik espaloiaren koska igotzeko baliatuz.

11. artikulua. Ziklomotorrak semibaterian aparkatuko dira galtzadan, gehienez ere metro eta erdiko zabalera okupatuz.

12. artikulua. Motozikleta edo ziklomotor bat bi ibilgailuren artean aparkatuz gero, ez da horietara pasatzea galaraziko, ez eta zirkulaziora itzulzeko maniobra ere.

13. artikulua. Debekaturik dago patinak eta monopatinak galtzadetan, espaloietan eta parke eta lorategietako karriketan ibiltzea, horretarako erreserbatutako alderik ez bada.

14. artikulua. Bizikletak galtzadan barna joanen dira, ahal den eta hurbilen espaloitik. Errei bat baino gehiagoko bideetan, albokoetan barna ibiliko dira. Errei bat baino gehiagoko bidegurutzeetara hurbiltzean, egin beharreko biraketari dagokion eskuineragoko erreiares eskuinaldetik joanen dira. Dena den, Udalak baimena eman dezake parke jakin batzuetan bizikletan ibiltzeko.

15. artikulua. Debekaturik dago bizikletak gauez ibiltzea, aitzineko argia eta gibealeko islatzailea, gutxienez, ez badaramate.

Argi keinukaririk ez duten bizikleta edo ziklomotorren gidariek garaiz seinatu beharko dituzte egin beharreko norabide aldaketak eta biraketak, besoak erabiliz, erregelamenduak adierazten duen bezala.

16. artikulua. Ziklomotorren gidariak eta erabiltzaileak beharturik daude kaskoa erabiltzera, behar bezala homologatua, ongi jantzia eta lotua.

#### Zamalanak

17. artikulua. Udalak zamalanetarako berriazko guneak finkatu ahalko ditu, erregelamenduzko seinale etzan edo zutikakoaren bidez adieraziak.

18. artikulua. Gune horietan, zamalanak salgaien garraioan aritzen diren ibilgailuek egingen dituzte, hauek 2 metro zabal edo 5,5 metro luze baino gehiago ez badira, beti ere horretarako erreserbatutako guneen barnean eta erregelamenduzko seinale etzan edo zutikakoen bidez adierazitako ordutegien barnean.

19. artikulua. Zamalanetarako erreserbatutako aldeetan, lan horiek egiteko nahitaezko denboran baizik ez da aparkatzen ahal eta inoiz ez 20 minutu baino gehiagoz.

20. artikulua. Inolaz ere ez daiteke oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eragotz edo oztopa, ez eta atari, saltoki edo baimendutako pasabideen sarbideak ere. Horretarako, zamalanetan erabiliko diren merkataritzako gaiak, materialak eta gauzak, lurrian utzi gabe, zuzenean eramanen dira ibilgailutik eraikinerara edo alderantziz.

21. artikulua. Lan horiek egiteko behar adina langile egonen da eta arretaz ariko dira, azkar, arriskurik gabe eta asots gutxi atereaz.

22. artikulua. Ibilgailuak espaloiarekin batean lerrokatu beharko dira, ertzaren kontra, aitzinaldea zirkulazio orokorraren norabidean, salbu eta bateriako aparkalekuetan, kasu horretan ibilgailuak ezin izanen baitira horretarako seinalatutako eremutik kanpora atera.

23. artikulua. Udalak aparkatzeko aldi baterako erreserbak eman ahal izanen ditu, lan berariazkoak egitearren (aldaerak, fuelaren hornidura, obrak, etab.), aldez aurretik eskatu eta dagokion tasa ordainduta.

Merkataritzako gai arriskutsuak eta garraioetako ibilgailu handiak

24. artikulua. Merkataritzako Gai Arriskutsuen Errepide bidezko Garraioaren Erregelamendu Nazionalaren (1754/1976 Dekretuaren bidez onetsia) 1-a, 1-b, 1-c eta 2 motetan sartutako merkataritzako gai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek, Erregelamendu horren 1 edo 2-A arrisku etiketak eraman behar dituztenek, debekatua dute Burlatako hirigunearen barnean zehar ibiltzea.

25. artikulua. 23. artikuluan aipatutako ibilgailuek erabat debekatua dute Burlatako udal mugape osoan aparkatzea.

26. artikulua. Haien ezaugarriak, luze-zabalerak edo zamaren kokaera direla eta, Zirkulazioaren Kodearen 222. artikuluan ezarritako baimenak behar dituzten ibilgailuek Burlatako Udalarari eskatu beharko diote ezen Udaltzaingoak egin diezaiela hirian zeharreko gidaritza, zaintza eta laguntza zerbitzua, eta dagokien tasa, Burlatako Udalaren ordenantza fiskalean ageri dena, ordaindu.

Oinezkoendako alderdiak

27. artikulua. Burlatako Udalak ibilgailuak ibili eta aparkatzeko debekua, erabatekoa edo hein batekoa, ezarri ahal izanen du udalerriko alde batzuetan. Horiexek izanen dira oinezkoendako alderdiak.

28. artikulua. Alderdi hauek zutikako seinaleen bidez zedarrituko dira, bai eta ibilgailuak toki horietara sartzea galarazi edo mugatuko duten bertze elementu batzuk ezarriz ere.

29. artikulua. Oinezkoendako alderdietan ibilgailuak ibili eta aparkatzeko debekuak:

a) Zedarritu eta seinalatutako alderdiaren barrenean dauden bide guztiak hartu ahal izanen ditu.

b) Ibilgailuak ibili eta aparkatzeko galaraziriko denbora ordutegi batera mugatu ahal izanen du.

c) Finkoa izan daiteke edo soilik astegun batzuetan aplikatu.

30. artikulua. Nolanahi ere, murrizketa hauek ez dute eraginik izanen Udalak, tokiaren zein ibilgailuaren erabiltzailearen ezaugarriak kontuan hartuta, baimena emandako ibilgailuen kasuan. Bizikletei ere ez diete eraginen, oinezkoendako aldeetan ibiltzen ahalko baitira, beti ere urrats arruntean dabilen pertsona baten zalutasunez egiten badute.

Oinezkoen kopurua apartekoa denean, udaltzainek hura mugatzeko behar diren neurriak har ditzakete.

31. artikulua. Oinezkoendako alderdietan oinezkoak lehentasuna izanen du ibilgailuen aurretik, salbu eta ibilgailua larrialdietan ibili eta, erregelamenduari jarraikiz, hala erakusten denean.

32. artikulua. Burlatako oinezkoendako alderdi guztietan abiadura mugaturik egonen da, eta 20 km ordukoa izanen da, gehienez.

Autobusak, kamioiak, atoiak eta karabanak aparkatzea

33. artikulua. Oro har, 5.000 kg-tik gorako B.G.P. duten ibilgailuek debeku dute udal mugapeko bide guztietan aparkatzea.

34. artikulua. Halaber, 21 bidaiari baino gehiagorendako tokia duten autobusek debeku dute udal mugapeko bide guztietan aparkatzea.

Aukeran, Alkatetzak edo hark eskuordetzen duen udal organo eskudunak urtero eta salbuespenez ematen ahalko dituzte behin-behinekoz autobusak aparkatzeko baimenak, egunean gehienez ere hiru ordukoak. Eskatzaileek Burlatan bizi behar dute eta garraio bereziko autobusen enpresa batekin lan harremana dutela egiaztatu beharko dute.

Horretarako bidea ematen duen txartela eskuratzeko betebeharrak 35. artikulukoak izanen dira, ibilgailua Burlatan helbideratua egon beharra izan ezik. Salbuespeneko aparkaleku horiek ondorengo artikuluan aipatzen den lekuan izanen dira.

35. artikulua. 33 eta 34. artikuluetan ezarriatik ere, Udalak leku bat ezarri du BGPa 3.500 kilogramo baino gehiago duten ibilgailuak eta 21 jarleku baino gehiago duten autobusak aparkatzeko, aparkaleku publikoetan, hilerriko biribilgunearen ondoan.

Aitzineko paragrafoan aipaturiko tokian ibilgailuak aparkatzeko udal baimena eskuratzeko, hauek izanen dira nahitaezko baldintzak:

-Pertsona fisiko edo juridikoa izatea, 5.000 kilogramo baino gehiagoko BGPa duen ibilgailu baten edo 21 bidaiari baino gehiago eraman ditzakeen autobus baten titularra, Burlatako etxebizitza batean erroldaturik eta hura ohiko bizitokia izatea. Orobat, ibilgailua toki berean helbideraturik egonen da eta haren ohiko gidariak erroldaturik egon beharko du Burlatako etxebizitza batean.

-Ordainketa eguneratua izatea, zer ibilgailutarako eskatzen den txartel ahalmen emailea, harexen zirkulazioaren gaineko zerga.

-Burlatako Udalari bizilagun txartela eskatu eta hura erdietsi izana, eredu ofizialaren araberrako eskabidearekin batean agiri hauek aurkeztuta:

NANaren kopia egiaztatua, eskatzailearen gidabaimenarena eta ibilgailuaren zirkulazio baimenarena.

Autoaren aseguru poliza indarra duenaren kopia eta ibilgailuen ikuskapen teknikoaren adostasun txostenarena, hura aginduzkoa bada.

-Bizilagun txartela eskuratuz geroztik egoera aldatu ez eta, beraz, hura lortzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen jarraitzea.

Lagun bakoitzeko ez da, inola ere, bizilagun txartel bat baino gehiago emanen, haren izenean zenbanahi auto egonik ere, eta pertsona bera ez da agertzen ahalko ibilgailu bat baino gehiagoren ohiko gidari gisa.

Bizilagun txartela ibilgailuen aitzineko haizetakoen barne aldean paratuko da, kanpotik garbi ikusteko maneran. Bi urterako balioko du eta eskatzailearena izanen da ez bertze inorena, eta zer ibilgailutarako eskatzen den, harexena.

Txartela eskuratzen duten eskatzaileak haren erantzule izanen dira, eta etxez edo ibilgailuz aldatzen direnean, edo hartarako eskubidea ematen duen edozein baldintza aldatzen denean, horren berri eman beharko diote Udalari, gehienez ere astebetean. Hartara, txartel berria eskuratuko dute, horretarako eskubidea izanez gero ordenantza honetan dagozkion artikulak dioenari jarraikiz, edo anarteraino indarra izan duen txartela indargabetuko zaie, horretarako eskubiderik ez badute.

Bizilagun txartel berria eskuratzeko, nahitaezkoa izanen da zaharra itzultzea interesdunari berria ematen zaionean.

Halaber, txartela itzuli beharko da helbidez aldatu edota baldintzaren bat ez betetzeagatik txartel berria lortzeko eskubidea galtzen bada, Udalari horren berri ematen zaion unean berean, edo hartarako eskubidea izanik ere hura berritu nahi ez denean itzuli ere.

Txartela ebatsi edo galduz gero, berehalakoan eman behar zaio horren berri Udalari.

Udalak noiznahi begiratu dezake txartelak emateko ezarritako baldintzak betetzen ote diren, eta betetzen ez dituztenei baliorik gabe utziko dizkie, bidezko bertze neurri edo zehapenak deusetan ukatu gabe.

Eremu horiek behar bezala seinalatuko dira; orobat, sarbidea galarazi, murriztu edo kontrolatzen duten baliabide teknikoak hartzen ahal dira.

Mugatutako eremuetara baimenik gabe sartzea nahiz bertan denbora soberaz gelditzea, biak izanen dira zehatzeko arrazoi.

Ezarritako lekuetara sartzeko arauak behin eta berriz ez betetzea gertatzen bada, Udalak txartela baliogabetzea erabaki dezake.

Arau-haustetzat hartuko dira aparkatzeko murriztuko eremuetan:

- Aparkatzeko ahalmena duen bizilagun txartel indarra duenik gabe aparkatzea.
- Bizilagun txartel faltsutuak edo manipulatuak erabiltzea.
- Bizilagun txartela faltsutzea edo manipulatzea.
- Bizilagun txartelak erabiltzea, bertan baimenduriko ibilgailuari ez dagozkionak.
- Aparkatze murriztueterako bizilagun txartela ongi ikusteko maneran ez paratzea.

Ordenantza honen 33. artikuluko arau-hausteak egiteagatik, zehapen hauek paratuko dira:

1) 16.000 pezetako isuna: aparkatze mugatuko eremuan egoliarrendako indarreko txartelik gabe edo, baimena duen ibilgailuarena ez, beste baten txartelarekin aparkatzeagatik, faltsifikatu edo manipulatu diren txartelak erabiltzeagatik edo txartelak faltsifikatu edo manipulatu izanagatik, bidezko litezkeen beste neurri edo zehapen batzuk deusetan galarazi gabe.

2) 10.000 pezetako isuna: egoliarrendako txartela begi-bistan ez jartzeagatik edo Ordenantza honetan ezarriarik dagoen aparkatzeko aldia gainditzeagatik.

3) Hori guztia, Trafikoari buruzko Legearen 69. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz, litezkeen zehapenen mailaketa deusetan galarazi gabe.

4) Ordenantza honen 43. artikulua aurkako arau-haustea gertatuz gero, ibilgailua ibilgetu ahalko da edo Garabi Zerbitzuak udal altxatokira eraman ahalko du, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen 70 eta 71.e) artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

36. artikulua. Debeku horiek ez dira bete beharko behar bezala justifikaturiko salbuespeneko kasuetan, aldez aurretik aginte eskudunaren baimena eskuratu baldin bada.

37. artikulua. Karabanak eta atoiak aparkatzeko beharrezkoa izanen da udal organo eskudunaren baimen berariazkoa eskuratu eta lurzoruaren probetxamendu bereziaren prezio publikoa ordaintzea.

38. artikulua. Erabat debekaturik dago karabana, atoi eta etxebizitza-ibilgailuetan bizitzea udal mugapearen barrenean, salbu eta horretarako egokitutako tokietan. Horiek osasungarritasuna eta higieina bermatzeko adina bitarteko izan beharko dute.

Trafikoaren kontrol eta antolamendurako neurriak

39. artikulua. Udalak egokituz jotzen dituen neurriak hartu ahal izanen ditu trafikoa antolatzeko, zenbait tokitan zirkulatzeko baldintzak aldatuz, murriztuz edo debekatuz, betikoz nahiz aldi baterako, aparkalekuak, zamalanak eta pertsona zein salgaien garraioa berrantolatuz eta arautuz.

3.500 kg-tik gorako B.G.P. duten ibilgailuek, gai arriskutsuak daramatzatenek eta 21 bidaiari baino gehiagorendako autobusek debekatuta dute Burlatako hirigunean barna zirkulatzeari, non ez den udal mugapean eginkizun jakin bat egiteko (baimendutako zamalanak, aparkaleku baimendua, garraio publikoa, bidaiarien lineaz kanpoko garraioa...).

40. artikulua. Udaltzaingoak aldi baterako aldatu ahal izanen du zirkulazioaren antolamendua, bai eta sarrerak debekatu edo murriztu ere, zirkulazioa seguru eta errazagoa izan dadin.

41. artikulua. Udaltzaingoak trafikoari dagokionez egiten dituen adierazpenek, oinezkoei zein gidariei, lehenagoko bertzeko edozein seinale edo arautegiren aldean. Adierazpen horiek argiak eta gidariarentzat edo oinezkoarentzat ulertterazak izan beharko dute.

42. artikulua. Udalak aldi baterako debekatu ahal izanen du aparkatzea jarduera baimenduek okupatu beharreko eremuetan eta konpondu, seinaleztatu, mantendu edo garbitu behar diren tokietan. Halako kasuetan eremu horiek mugatuko dira, debekua 24 ordu lehenagotik seinalatuz, neurriari noiz emanen zaion hasiera adierazten duten seinaleen bidez.

Epe horretan kentzen ez diren ibilgailuak Udalaren Garabi zerbitzuak eramanen ditu, inguruko toki batera edo udal altxatokira, baina jarduketa horrek ez du ekarriko ez tasa ordaindu beharrik ez trafikoko salaketarik. Kasu horietan non dauden ibilgailuak jakinaraziko zaie titularrei.

43. artikulua. Bide publikoan edozein gauza paratzeko, Udalaren baimena beharko da. Horrelakorik ez duen oro berehalakoan kenduko da, interesatuaren kargura, bai eta, baimena izanik ere, bideetako segurtasuna edo osasungarritasuna ziurtatzeko neurriak hartu ez dituztenenak ere.

44. artikulua. Erabat debekaturik dago zirkulazio seinaleak aurretik Udalaren baimena izan gabe paratzea.

Inolaz ere ez da baimenduko publizitatea zirkulazio seinaleetan edo haien ondoan jartzea.

45. artikulua. Udalak halako bideak lehentasunekoak edo zirkulazio dentsitate handikoak direla deklaratu ahal izanen du, bigarren ilaran gelditzea debekatu eta bertan egindako arau-hausteengatik zehapenei isuna ezartzeko.

46. artikulua. Burlatako udal mugapeko bide publikoan ibilgailuak aparkatzeko tokia mugatua da. Hortaz, elkartasunez jokatzeko deia luzatzen da.

Horrenbestez, ibilgailu bat 15 egun gehienez egon ahalko da toki berean mugitu gabe. Epe hori gaindituta, ibilgailua aurreko tokitik gutxienez 100 metrora aparkatu beharko da.

Baimendutako eremuan denbora gehiegi emanez gero, zehapena jarriko da.

Sarrera mugatuko eremuak

47. artikulua. Burlatako Udalak erabakitzen duen aldeetan, ibilgailuen sarrera nahiz barnean egin dezaketen denbora ere mugatzen ahal dira.

48. artikulua. Alde horiek behar bezala markatuko dira eta, horrez gain, sarrera eragotzi, murriztu edo kontrolatzeko baliabide teknikoak erabil daitezke.

49. artikulua. Eremu mugatuetan behar bezalako baimenik gabe sartzeak edo behar baino denbora gehiago egoteak zehapena ekarriko dute.

Eremu mugatuetan sartzeko edo egoteko arauak behin eta berriz urratuz gero, Udalak horretarako ahalmena ematen duen txartela kentzeko erabakia har dezake.

Garraio publikoaren geralekuak

50. artikulua. Burlatako Udalak zehaztuko du non kokatu beharko diren garraio publikoaren eta bidaiarien lineaz kanpoko garraioaren geralekuak.

Autobusak geratu beharko dira horretarako prestatutako tokian, zirkulazio erreiak libre utziz.

51. artikulua. Geralekuetan bidaiariak hartu eta uzteko behar den denbora baizik ezin da egon.

52. artikulua. Taxi zerbitzurako garraio publikoko geralekuetan, soilik bidaiarien zain eta prest dauden bitartean egoten ahal dira ibilgailu horiek.

53. artikulua. Ibilgailuen kopurua ez da inolaz ere izanen geralekuak har ditzakeen ibilgailuena baino handiagoa.

#### Ibilgailu abandonatuak

54. artikulua. Ibilgailu abandonatuak karrikan luzaroan eta mugagabeko epean egon ez daitezten, bide publikoa erabiltzeko ohiko aukerak murriztu eta narriadura estetikoa eta zikinkeria ekartzen baitituzte, ondoko artikuluetan aurreikusitako jarduketak egingen dira haien gainean, kanpoko itxurak, toki berean emandako denborak (60 egun gehienez) eta bertze inguruabarrek abandonaturik dagoela pentsarazten badute:

55. artikulua. Burlatako Udalak ibilgailuaren erregistroko titularrari jakinaraziko dio hura ustez abandonatua dagoela, eta horrek borts egun naturaleko epea izanen du egokitzat jotzen dituen alegazioak eta, betiere, ibilgailuaren aseguruaren kopia aurkezteko. Ibilgailua, arriskuren bat sortzen badu, kentzen ahalko da eta titularrari ondotik jakinarazi.

Aurreko lerroaldean aipatutako epean titularrak alegaziorik aurkezten ez badu, ez eta indarra duen asegururik ekarri ere, ibilgailua udal altxatokira eramanen da. Ibilgailua behin altxatokian utzita, handik eraman ahal izateko beharrezkoa izanen da indarra duen asegurua aurkeztu eta dagokion tasa ordaintzea.

Ibilgailu abandonatua altxatokira eraman ondotik, titularrak berreskuratzeko eskaerarik egin gabe, edo alegazioak eta indarra duen asegurua aurkezteko epea bukatuz geroztik, hogeita hamar egun natural iraganik, desagitera bidaliko da eta hala jakinaraziko zaio Probintziako Trafiko Burutzari, dagokion erregistroan baja emateko.

#### Gelditu eta aparkatzea

56. artikulua. Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen eranskinetako 68. zenbakian jarraikiz, ibilgailua, pertsonak hartu edo uzteko edo zamalanak egiteko, 2 minutu baino gutxiagoz mugitu gabe edukitzea da gelditzea.

Aparkatzea, berriz, aurreko lerroaldeko egoeran, hau da, geldituta, ez dagoen ibilgailua mugitu gabe edukitzea da.

57. artikulua. Ibilgailua geldituta dagoenean, arau orokorra da gidaria ezin dela ibilgailutik aldentu, eta, salbuespen gisa, hala egiten badu, motorra itzali beharko du eta hurbil egon, eskatzen zaion unean edo egoerak behartuta, kendu ahal izateko.

58. artikulua. Erabat debekaturik dago gelditzea:

a) Babeslekuetan, babesguneetan, erdibitzailuetan, oinezkoendako alderdietan eta trafikoa bideratzen duten gainerako elementuetan.

b) Eraikinetako sarrera-irteeretan, dagokien pasabide seinalea dutenetan.

c) Seinaleak ongi ikustea eragozten den tokietan.

d) Izkina, bidegurutze edo bidebanatzeetatik 5 metro baino gutxiagora.



- e) Zubietan, tuneletan eta gainetiko pasabideen azpian, kontrako seinalerik ez badago.
- f) Espaloietan, pasealekuetan, oinezkoendako alderdietan eta lorategietan.
- g) Zirkulaziorako edo zenbait erabiltzailearen zerbitzurako erreserbatutako erreie edo bide-zatietan.
- h) Ezinduendako edo bertze erabilera batzuetarako espaloi-oketsetan.
- i) Zirkulazioaren erreie bat oztopatzen den tokietan.
- j) Seinaleak debekatzen duen tokietan.
- k) Seinaleak baimendutako biraketa egitea eragozten denean.
- l) Hiriko garraio publikorako baizik ez diren geraleku eta aparkalekuetan.
- m) Zirkulazioa oztopatzen den bertze toki guztietan, denbora txikienerako bada ere.

59. artikulua. Ibilgailuak ilaran aparkatu ahal izanen dira, hau da, zintarriarekin batean lerrokatuak; baterian, hau da, zintarriarekiko perpendikularrean; edo semibaterian, zeharka.

59.1. Zoladuran seinaleak dituzten aparkalekuetan, ibilgailuak markatutako perimetroaren barnean aparkatuko dira.

59.2. Ibilgailuak zintarritik ahal den hurbilen aparkatuko dira, galtzadaren alde hori garbitu ahal izateko adina tartea utziz.

59.3. Bide publikoetan ezin izanen dira aparkatu ibilgailu motoretik bereizitako atoiak.

59.4. Bertze erabiltzaileek gainerako tokia ahalik eta hobekien erabiltzeko maneran aparkatuko da.

Baterian aparkatuz gero, alde bietan aparkatutako ibilgailuetara arazorik gabe sartzeko maneran egingen da.

59.5. Zamalan, zerbitzu ofizial eta abarretarako aldi baterako erreserbatutako alderdietan ordutegitik kanpo aparkatzea libre izanen da, salbu eta espreski debekaturik badago.

60. artikulua. Erabat debekaturik dago aparkatzea:

- a) Seinaleek debekatzen duten tokietan.
- b) Gelditzea debekatuta dagoen tokietan.
- c) Bigarren ilaran, edozein kasutan.
- d) Zamalanetarako seinalatutako tokietan, denbora mugen barrenean.
- e) Pasabideetan, erabat edo hein batean.
- f) Zaborrontzien ondoan, zabor bilketa galaraziz edo oztopatuz.

- g) Aparkaleku publiko batean, ongi aparkatutako ibilgailu bat ateratzea eragotziz edo oztopatuz.
- h) Espaloirik ez duten karrika urbanizatueta.
- i) Ezinduek bertze inork ez erabiltzeko seinalatutako tokietan.
- j) Galtzadaren erdian.
- k) Zerbitzu publikoaren, Burlatako Udalaren, erakunde ofizialen eta antzekoen ibilgailuendako erreserbatutako eremuetan.
- l) Behar bezala seinalatutako toki erreserbatueta.
- m) Udaltzaingoak baimen berezia duten pertsonendako adierazten dituen tokietan (elbarriak...).

Ibilgailuak bide publikotik kentzea

61. artikulua. Udaltzainek, egin behar duenak segituan egiten ez badu, ibilgailuak bide publikotik kendu eta udal altxatokira eraman ahalko dituzte honako kasu hauetan:

- a) Arriskutsua denean, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari nahiz zerbitzu publikoen funtzionamenduari traba larria egiten dienean, ondare publikoa narriatzen duenean eta, orobat, ibilgailu hori bide publikoan abandonatua dagoela uste izatekoa denean.
- b) Istripuren bat izan eta abiatu ezinik gelditzen denean.
- c) Ibilgailua bera hondatu delako, ibilgetzen bada.
- d) Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen 67.1 artikulua hiruugarren letroraldian xedatutakoari jarraikiz, ibilgailua ibilgetu ondotik, arau-hausleak isunaren zenbatekoa ordaindu nahi ez duenean edo hura ordaintzeko bermerik eman nahi ez duenean.
- e) Ibilgailua erreietan edo zirkulaziorako edo zenbait erabiltzailereren zerbitzurako soilik erreserbatutako bide-zatietan aparkatuta dagoenean.
- f) Zaborrontziak husteko lanak oztopatzen dituean.
- g) Ibilgailua etilometria frogan ondorioz ibilgetua egonik, behar bezalako baimena duen beste pertsona batek ibilgailuaren kargua hartzen ez duenean. Horrelakorik baldin badago, horrek ere egin beharko du frogara eta baimendutako tasa ezin izanen du gaintu.

62. artikulua. Kasu bakar batzuk baizik ez aipatzearen, ibilgailua ordenantza honen aurreko artikulua a) atalean zehaztutako inguruabarretan dagoela eta, beraz, kentzea justifikatua dagoela ulertuko da:

62.1. Gelditzea debekaturik dagoen toki batean aparkatuta dagoenean.

62.2. Ibilgailua bigarren letroran eta gidaririk gabe aparkatuta dagoenean.

62.3. Alaka baten erpinetik edo izkina baten mutur edo eskuadratik zati bat ateratzen denean, bertze gidariei maniobra arriskutsuak egitera behartuz.

62.4. Oinezkoen pasabide seinalatu batean edo ezinduendako espaloi-okets batean aparkatuta dagoenean.

62.5. Erabiltzeko baimendutako orduen barnean pasabide bat osorik edo zati batean okupatzen duenean.

62.6. Zamalanetarako erreserbatutako toki batean, erabilera orduetan, aparkatuta dagoenean.

62.7. Garraio publikoaren geraleku seinalatu eta mugatu batean aparkatuta dagoenean.

62.8. Larrialdi eta segurtasun zerbitzuetarako espresuki erreserbatutako tokietan aparkatuta dagoenean.

62.9. Elbarriendako toki erreserbatu batean aparkatuta dagoenean.

62.10. Espaloi, ibiltoki, babesgune, pasealeku edo zoladuran zerrendak pintatuta dauden tokietan aparkatuta dagoenean, espresuki baimenduta dagoenean izan ezik.

62.11. Bidearen gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea eragozten dienean.

62.12. Biraketa eragotzi edo hura egiteko maniobrak egitera behartzen duenean.

62.13. Bide batetik datozen gidariei bertze bidea ikustea trabatzen dienean.

62.14. Eraikin bateko sarrera osorik nahiz zati batean oztopatzen duenean.

62.15. Galtzadaren erdian aparkatuta dagoenean.

60.16. Betiere, aurreko kasuetan bezala, arriskua edo zirkulazioari zein zerbitzu publikoen funtzionamenduari eragozpen handia sortzen baldin badie.

63. artikulua. Arau-hausterik egon gabe ere, bide publikotik ibilgailuak kendu ahal izanzen dituzte kasu hauetan:

63.1. Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko bat egiteko erreserbatuta dagoen toki batean edo segizio ofizial, prozesio edo antzeko baten pasabidean aparkatuta baldin badaude.

63.2. Bide publikoa garbitu, konpondu, kontserbatu edo hartan seinaleak paratu ahal izateko ibilgailuak kendu beharra dagoenean.

63.3. Larrialdietan.

Inguruabar hauen abisua lehenbailehen egin beharko da eta baimendutako tokirik hurbilenera eramanen dira ibilgailuak, edo udal altxatokira, eta titularrei non dauden jakinaraziko zaie.

Eramateak ez du inolako ordainketarik sorraraziko, ibilgailua noranahi eramanda ere.

64. artikulua. Baldin eta, ibilgailua kentzeko lanak hasita, gidaria agertzen bada, bertan behera utziko dira lan horiek, beti ere Burlatako Udalaren ordenantza fiskaletan kontzeptu horrengatik agertzen den tasa ordaindu ondoren.

#### Zehapen prozedura

65. artikulua. Ordenantza honetan araututako gaietan eraman beharreko prozedura Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide-segurtasunaren arloko Zehapen Prozeduraren Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan ezarritakoa izanen da, eta aipatutakoan aurreikusirik ez daudenetan Zehapen Ahalmenaz Baliatzeko Prozeduraren Erregelamendua, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, aplikatuko da.

66. artikulua. Ordenantza honetan araututakoaren kontrako arau-hausteengatik irekitako espedienteak Burlatako udaltzainburuak izapidatuko ditu, edo haren eginkizunak betetzen dituenak. Udaltzainburua kanpoan badago edo haren errefusatze edo abstentzioa, legezko arrazoia dela eta, gertatzen bada, alkate-udalburuak izendatzen duena ariko da haren ordeiz. Izapidaketa amaituta, Burlatako Udaleko alkate-udalburuak emanen du bidezkoa den ebazpena.

67. artikulua. Zehapena Udalaren eskumenekoa ez den arau-hausteen kasuan, Burlatako Udaltzaingoak salaketa egingen du, eta ondoren administrazio eskudunari igorriko zaio.

68. artikulua. Diru zehapenarekin batera, gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko zehapena ere jaso dezaketen arau-hausteengatik irekitako zehapen espedienteak, betiere zehapena Udalaren eskumenekoa duten egitateak badira, Burlatako udaltzainburuak izapidatu eta ebatziko ditu, eta ondotik agintari eskudunari igorriko zaizkio, soilik gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko balizko zehapena ezar dezan.

69. artikulua. Jakinarazpenetarako, ibilgailuaren gidariaren eta titularraren helbidea gidarien eta arau-hausleen erregistroan eta ibilgailuenean, hurrenez hurren, ageri dena izanen da. Interesatuak bertze helbide bat ematen badu, aldatu egingen da, horretarako arrazoia, instruktorearen iritziz, prozedurari trabak jartzeko ahalegin maltzurra ez bada.

70. artikulua. Zehapen espedienteen ebazpenaren kontra errekurtsio hauetako bat aurkezten ahalko da:

1. Berraztertze errekurtsioa, egintza eman duen udal organoari zuzendua, ebazpen honen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epearen barnean.

2. Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, jakinarazpenaren egunetik hilabeteko epean

3. Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, administrazioarekiko auzien arloko epaitegiari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Indarrik gabe gelditu dira ordenantza honi kontra egiten dioten edo bertan araututako gaiei buruzko xedapenak dituzten maila bereko edo baxuagoko udal arauak.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

Bakarra.-Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIAlean behin betikoz argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.